

20.000 ERLE
ESPEZIE

ZINEMA- RAAAA

GIDA PEDAGOGIKOA

ESTIBALIZ URRESOLA SOLAGURENEN FILM BAT

tabakalera.eus



SARRERA

20.000 erle espezie filmaren inguruan egin dugun gida pedagogiko honek lagundu nahi du lanketa-prozesuan identifikatu ditugun zenbait alderdi, tematiko eta formal, azpimarratzen. Gida hau irakasleei zuzendua dago. Hemen aurkezten ditugunak lanketa-ildo proposamenak dira, pelikula ikusi ondoren bakoitzak bere ikastexe, elkarte edo hezkuntza testuingurura egokitu ditzan, nahi duen erara erabiltzeko. Gida honetatik abiatuta garatu daitezkeen jarduera ezberdinek genero-sistema bitar batean hazteak eta hezteak suposatzen duenari buruz kritikoki pentsatzea sustatzeko balio dezaketela uste dugu.

Estibaliz Urresola, pelikularen zuzendaria, eta Eihera kooperatiba izan ditugu bidelagun gida sortzerakoan. Gaiei erreparatzeaz gain, forma zinematografikoari ere begiratu nahi izan diogu. Film bat ez baita bakarrik narrazioak adierazten duena, narrazioa erakitzeko moduak berak ere (planoek, soinuak, enkoadraketek eta abar) pelikula definitzen baitu.

Gida hiru bloketan antolatu dugu, pelikularen ardatz nagusiei erreferentzia egiten dietenak. Bloke bakoitzaren barruan hiru azpi-atal daude. Alde batetik, ildoarekiko hausnarketa orokorra, tematikoki zein zinematografikoki inportanteak iruditzen zaizkigun ideiak laburki garatuz. Bestetik, eszena ezberdinen minutajea, blokearen lanketan lagundu dezan. Eta azkenik, galdera gakoak edo hausnarketarako balio dezaketen ariketa proposamenak.

Gida hau *Zinemaraaaa* programaren baitan garatu da. *Zinemaraaaa* Tabakalerako hezkuntza eta zinema arloek elkarlanean garatzen dugun programa da. Filmek egunerokoan presente ditugun bizipen, egoera, eztabaida eta gai ezberdinak irudikatzeko gaitasuna dutela uste dugu. Aukera ematen digutela inguratzen gaituzten gaiekiko

IZENA

Gorputz bakoitzak genero identitate bat esleitua dakarrela naturalizatzen duen testuinguru batean sozializatuak gara. Testuinguruak eraikitzen gaitu hasieratik, modu bitarrean identifikatuak garelarik; emakume ala gizonezko, ez besterik. Eta izena da genero-marka horren eraikitzaile agerikoenetako bat.

Izena da, hain zuzen, filma egituratzen duen ardatzetako bat. Hasieratik trebeki sostengatzen da horrekiko nolabaiteko zalantza bat ikuslearengan. Cocó, edo Aitor, edo... Haurrak bere izenarekiko duen gatazka eta erabakimen prozesuak zeharkatzen du pelikula, ikusleak Lucíarekin batera bizi duelarik sentitzen duen deserosotasun hori, geroz eta intentsitate handiagoz. Baina ez da izena bakarrik Lucía deseroso sentiarazten duena. Filman zeharreko pasarte ezberdinetan agerikoa den bezala, genero bitarraren egitura -hau da, neska/mutil logika-, etengabe presente dago gure egunerokotasunean. Espazio publikoak bitan banatzeko moduan, adibidez, komunak edo igerilekuko aldagelak kasu. Oso errotua daukagun egitura da, nahiz eta askotan ez garen horretaz ohartzen. Sistema binario horretatik kanpo geratzen direnertzako zama handia dena, besteak beste beraien burua gizartearen aurrean izendatzerakoan.

Filmeko haurrak Lucía gisa autoizendatzea erabakitzen duen bezala, interesgarria gerta daiteke baita Cocó izenak identitate posible bezala irakitzen duen aukera aztertzea. Neska/mutil logikaren zurruntasuna ikustarazten laguntzen du, Cocó generorik ez duen izena baita. Horrela sentitzen/erabakitzen duenarentzat bizigarria izan beharko lukeen leku bat. Genero binario batean ez egotea ere zilegi delako. Horrez gain, trantsizioa ez dugu zertan ulertu behar bukatzen den edo amaiera duen ekintza lineal moduan. Joan-etorriak egon daitezke, horiek ere munduan egoteko tokiak dira.

HARREMANAK

Hausnarketa-gakoak eta galderak:

Familia-konstelazio zabala dago irudikatuta *20.000 erle espezien*. Erlauntza moduko harreman sare honetako partaide bakoitzak dauzka generoarekin lotutako rolak, berarentzat gatazkaitsuak izan edo ez, gainontzekoekin harremanetan eragiten dutenak.

Ildo honetan sakontzeko ariketa proposamen bat, taldean egiteko:

1. *Jaso diagrama batean filmako familiaren harreman-sare edo konstelazioa. Irudikatu diagrama nahi duzuen moduan, partaide ezberdinak identifikatzea da xedea.*

2. *Aztertu partaide bakoitzaren rola, konstelazio horretan. Zein harreman dauka rol horrek generoarekin? Zer da bakoitzagandik espero dena, generoaren ikuspegitik? Badauka pertsonaia horrek zailtasunik / gatazkarik / mugarik horrekiko?*

3. *Zein inpaktu dauka partaide bakoitzaren genero-eraikuntzak, edo generoa bizitzeko moduak, besteekiko harremanean?*

Transformazioa. Zuzendariak hainbatetan azzpimarratu duen moduan, film poliedriko honetan ez da Lucía trantsizioa dagoena. Trantsizioa familiak burutzen du, bidaia horrek aukera ematen die nobrebe bizitzari buruzko gauzak ikasteko. Filmak kontzienten duena pentsatzean, zer kontatu eta nola, funtsezkoa da zuzendariak egindako hautu hau.

Aneren kasuan adibidez, Lucíaren bizipen guztiak ipilua jartzen diote aurrean, bizitzan zer egiten ari den, nor den. Profesionalki ez du oraindik lortu desiratzen duena. Are gehiago, lan eskaintzarako bere aitaren piezak entregatzen ditu bereak balira bezala, iruzurtiaren sindromea gorputzuz.

GORPUTZA

Hausnarketa-gakoak eta galderak:

1. *Izendatu noiz sentitzen duen lotsa Cocók / Lucíak. Zergatik? Nork / zerk eragiten dio lotsa hori?*

Eta gainontzeko pertsonaiek, zerekiko sentitzen dute lotsa?

Ariketa honek lagun gaitzake ohartzten hainbestetan mingarria den lotsa hori moral edo konbentzio erabat zurrunek eragindakoa dela. Nola, funtsean, lotsatzen gaituzten gauzak diren, berez, gauza txikiak, egunerokoak.

2. Erea berean, lotsa gainditzearen momentua ere iristen da filman, Lucíak izekorekin erre kara sartzea lortzen duenean, adibidez. *Identifikatu noiz dagoen Lucía seguru. Zu hor bazeunde, zer egingo zenuke edo nola jokatuko zenuke espazio hori seguruaogoan izan zedin?*

Aurreko galdera erantzutea zaila gertatzen bada, eman buelta galderari: *espazio seguru bat eraikitzeko, zer ez zenuke egingo?*

Piszina, erreka, tailerra, sirena. Gorputza da *20.000 erle espezie* zeharkatzen duen beste ardatz nagusietako bat. Badira espazio batzuk non gorputza presente dagoen, modu batera edo bestera. Eszena batzuk non ikustarazten den genero-sistemaren zurruntasunak gorputz horiei eragiten diena.

Piszinak, gizarteen horren txertatuta dagoen genero-sistema bitarraren biolentzia oso zuzenki erakusten du filman: bertan espazio publikoa bitan banatzen da (komunak, aldagelak...) eta bertan sartzeko karneta ‘pasaportea’ bilakatzen da. Gizarteko beste espazio askotan bezala,

begirada kritikoak eraikitzeko. Horretarako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle-taldeen zein orotariko elkarteek Tabakalerako zine aretoan ikusteko aukera izango duten zenbait pelikula proposatzen ditugu urtero.

Gida honek Donostia Kulturaren laguntza izan du, XXI Giza Eskubideen Zinemaldiarekin sustatutako elkarlanaren baitan.

Informazio gehiagorako: hezkuntza@tabakalera.eus

ESTIBALIZ URRESOLA SOLAGUREN, ESPAINIA, 2023, 125'
Gaztelera, euskara, frantsesa
20.000 ERLE ESPEZIE

SINOPSIS
Cocók zortzi urte ditu, ez dator bat gainontzekoek berarengandik espero dutenarekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek beti Aitor deitzen dioten arren, berak ez dubere burua izen horrekin identifikatzen.

Anek, bere amak, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera joateko. Bertan bere ama Lita eta izeko Lourdes erlezaina bizi dira.

Uda honek bizitza aldatuko die hiru belaunaldi ezberdinetako emakume hauei, beren zalantza eta beldurrei aurre egitera behartuz. Eta batez ere, Aneri, azkenean zintzoa izan beharko baitu bere buruarekin.

Gida hiru bloketan antolatu dugu, pelikularen ardatz nagusiei erreferentzia egiten dietenak. Bloke bakoitzaren barruan hiru azpi-atal daude. Alde batetik, ildoarekiko hausnarketa orokorra, tematikoki zein zinematografikoki inportanteak iruditzen zaizkigun ideiak laburki garatuz. Bestetik, eszena ezberdinen minutajea, blokearen lanketan lagundu dezan. Eta azkenik, galdera gakoak edo hausnarketarako balio dezaketen ariketa proposamenak.

Hizkuntza eta generoa. Genero-sistema bitarra hizkuntzan ere oso barneratua dago. Hizkuntza ere bada autoizendatze horrek suposatzen duen zamaren eragile. Hizkuntzarekin lotutako genero-marka hauek badaukate bere garrantzia pelikulan, Lucíaren ingurua bere ondoezaz jabetzeko momentuan eta beraien arteko elkar-ulertzean. Gaztelerak euskarak baino genero-marka askoz determinatuagoak dituzenez, zuzendariak hizkuntzen aldaketa erabiltzen du pasarte hauek irudikatzeko.

Eremuz kanpo. Hizkuntza eta generoarekin lotuta kontzeptu zinematografiko bati buruz hitz egin nahi dugu: eremuz kanpokoa. Zine kontzeptu honek kameraren enkoadraketatik kanpo ematen den informazio dramatikoari egiten dio erreferentzia. Soinuaren bitartez lantzen da.

Hemen adibide bat: 26:00-26:39 pasartean Lucía bere amonarekin doa eta bizilagunek agurtzen dituzte. Irudian Lucíaren aurpegia ikusiko dugu denbora guztian baina amona eta bizilagunen arteko elkarriketa entzungo dugu. Bizilagun batek dio “está muy hermosa” eta amonaren erantzuna “guapísimo” izango da.

Pelikulan badago beste eszena bat non eremuz kanpokoa oso garrantzitsua den. Filmaren ia amaieran Lucía desagertu denean eta familia osoa basoan bere bila dabilenean, eremuz kanpo entzungo ditugu familia kideek erabiltzen dituzten izenak.



Personalki ere gatazkan dago. Transformazioan dago Ane. Estibaliz Urresolak elkarriketeta batean dio berez pelikularen protagonista amaren eta Lucíaren arteko harremana dela, hori dela nagusiki transformatzen dena.

Erlauntza. Eszena batean erreferentzia zuzena egiten zaio familiako harreman eta rol sare honi, familiako partaideak erle mota ezberdinekin konparatuz: nor den erle-inudea, erle-mandoa , zaindaria... “Eta erregina?” Atal honetako gogoetaren nahia da, batetik, generoa bizitzeko moduek harremanak baldintzatzen dituztela ikustaraztea. Anitza den harreman-erlauntza honetan, genero eraikuntzak denengan baitauka eragina, ez bakarrik Lucíarengan.

Halaber, garrantzizkoa da jabetzea generoa bizitzeko moduak ere anitzak direla. Izenburuko metaforak adierazten duen moduan, 20.000 modu egon daitezkeela hori bizitzeko.

Harreman-sare honetan funtsezkoa da ingurukoek egiten duten ibilbidea, Lucíarentzat segurua den espazio bat eraikitzea. Termino honek ez dio erreferentzia egiten espazio fisikoari, lekuari; bertan ematen diren

ezin da neska / mutil dikotomiatik atera. Zurruntasun eta zapalkuntza hau Lucíak izebarekin errekan bainua hartzen duen momentuarekin kontrajarri dezakegu: bertan lasaigo dago, eta lehendabiziko sentitzen du bere gorputza izekori aurkezteko ausardia. Errekako espazio naturalean mugak, nahiz eta egon daitezkeen, lausoagoak dira, eta horrez gain segurtasuna ematen dion pertsona batekin dago. Piszinako umunetan amarekin sentitzen duen amonruarekin alderatuta, errekan izebak espazio seguru bat sortzen du, “neska baten pitilinak garbi egon behar du” esaten dionean kasu. Erosotasuna edo arroztasuna espazioek, pertsonen jarrerek, begiradek eta beste hainbeste egiturek determinatzen dute.

Eskulturen tailerra da gorputzak presentzia handia duen beste espazio bat. Lucíaren amak, Anek, berea duen leku bat da; gustukoa, segurua. Tailerrean lanean ari da, pieza berriak gorputzu nahian. Lucia eta bere anai-arrebek ere gustuko dute, deskubrimendu eta esperimentazio leku bat da beraientzat.

Amak argizariarekin beraien autoerretratua egiteko eskatzen dienean, anaiak aita eta bera irudikatzen ditu; alaba zaharrenak bere gorputz idealizatua; eta Lucíak, berriz, sirena bat. Lucíaren autorretratua bada ere hasiera batean arreta deitzen duena, eszena honetan erraz identifikatu daiteke Lucíaren senideen auto-errepresentazioak nondik eta nola dauden eraikiak.

Sirena. Lucíak bere burua sirena batekin identifikatu izana akaso ez da ausazkoa. Ez genuke sirenen iruditeria erromantizatu nahi; oso feminizatua dagoeno irudia izanik, ikus-entzunezko mainstream-aren eraginez besteak beste. Baina parekatze honek agian izan dezake harremana gorputz ez bitar batekin identifikatzearekin, edo behintzat genitalitaterik ez daukan izaki batekin. Lucíak bere burua horrela irudikatzean sisteman arrakala bat sortzen du, astindu bat.



Momentu batetik aurrera, Ane eta Eneko “Lucía! Lucía!” oihukatzen hasten diren arren, munduak, inguruak, eremuz kanpokoak “Aitor, Aitor” erantzungo die bueltan.

Hausnarketa-gakoak eta galderak:

1. Neska/mutil logika oso sartuta dago gure buruetan, aurretik aipatu bezala. *Zein eszenatan sentitu duzu hori modu arginean?*

2. Pentsa dezagun izenak norberarentzat leku bat direla. Momentuoro bizi dugun espazio bat, gurekin uneoro daramaguna. Filmeko haurrari Cocó izena ez zaio leku bizigarri bat iruditzen, eta Lucía gisa izendatzen du bere burua.

Zure ustetan, zer da aldatzen dena, Cocótik Lucíara? Zein ezberdintasun dago, Lucía bezala izendatzearen lekuarekin?

Izena aldatzen da, erlazionatzeko modua aldatzen da, baina ez bere gorputza. Gorputz okerraren kontzeptua zabaldutako diskurtsoa da gure gizartean. Baina kontuz honekin! Lucíaren gorputza ez da okerra. Honi buruz sakontzeko, ikus “Gorputza” ildoa eta “Beste erreferentzia” batzuk atala.



jarrerek, harremanek eta espazio horretan dauden pertsonek egiten dutelako espazio bat segurua izatea.

Leku seguruen harira, familia nuklearraz haratagoko egitura, erakunde, sare eta komunitateen garrantzia eta beharrezkotasuna ere azzimarratu nahi genuke. Horiek direlako trans pertsona askoren sostengu emozional kolektiboa. Familian onarpen ibilbide hori gertatu ez delako; edota nukleo hori ezin delako izan bizitza bizigarri eta zorionsuen berme bakarra. Familia nuklearretik kanpo ere egon daitezkeelako aukeratutako beste familia batzuk.

Nola filmatu intimitatea. Nola hasten eta bukatzen da pelikula? Pelikularen lehenengo eszenan Lucía ikusten dugu ohean etzanda eta begiak itxita eta Ane, bere ama, berarekin dago. Anek esaten dio “Sé que no estás durmiendo. ¿Has sido tú, sí o no? ¿Te gusta Martina?” Momentu horretan Lucíak begiak irekiko ditu.

Pelikularen azken eszenan berriro ohe batean gaude. Ane eta Lucía etzanda daude hemen ere. Oraingoan, kamerak Ane enfokatzen du lehenengo eta Lucíak amari galdetzen dio: “¿Estás despierta?”.

Lehenengo pasartean beraiek bakarrik dauden bitartean, azken eszenan ordea familia guztiarekin batera daude. Beraz, pelikulako pertsonaiak ohean etzanda filmatuta ikustea pelikularen ezaugarrietako bat da. Gorputzak ohean etzanda ikusteak intimitate bat transmititzen dio ikusleari.

Zein beste ezberdintasun somatu daitezke lehenengo eta azken pasartearen artean? Gogoratzen duzu pelikulan ohean gertatzen den beste eszenaren bat? Zer esanahi daukate, edo pertsonaien zer garapen adierazi dezakete? Nola filmatuko zenuke zure espazio intimo bat? Zein baliabide erabiliko zenituzke?

Lotsa. Ezaguna egiten zaigun sentipena da lotsa, denok nahi baino sarriago sentitzen duguna. Estibaliz Urresolarentzat, filmako emakume* pertsonaia guztiek amankomunean duten zerbait da; lotsa presente dago denetan, modu batera edo bestera.

Ikuspegi feminista batek lotsa sentipen hau termino politikoetan ulertzen laguntzen digu; gizarte patriarkalean (auto) kontrol mekanismo bihurtzen baita. Zeinak gure burua mugatzera eraman gaitzakeen, inork ezer esan beharrik gabe ere.

Nobrebe gorputzarekiko sentitzen da maiz lotsa edo deserosotasun hori, gradu batean edo bestean denok sentitzen duguna. Baina lotsa besteen begiradarekiko sentitzen dugun afektu bat da, ez nobrebe kasa eta ‘berez’ datorrena. Gorputzekiko normatibitate zurrunak eraikia da, eta besteen begiradan ‘jokatzen’ da horrekiko autoestimua. Beraz, begirada hori eta hura eragiten duen araua da problematizatu behar dena; ez gorputzak. Ez dago gorputz okerrik.

Planoak eta kameraren kokapena aipatuko ditugu gorputza atala zinematografikoki lantzeko. Zinean plano mota ezberdinak daude: Plano Orokorra, Plano Amerikarra (¾), Plano Ertaina, Lehenengo Planoa

Pelikulan, orokorrean, **lehenengo plano**a asko lantzen da. Kamera Lucíaren aurpegian kokatuz. Gainera, filmak daukan beste ezaugarrietako bat da askotan kamera Lucíaren begien alturan kokatzen dela eta honek ikusleak ikuspuntua berarekin izan dezan eragiten du.

Baina badago pelikulan **plano orokor** garrantzitsu bat. Lucía eta bere lagunak, Nikok, bainujantziak aldatzen dituztenean, plano orokor batean daude filmatuta. Pertsonaiak eta paisaia ikusten ditugu, adibidez. *Zer beste plano orokor gogoratzen dituzu eta zergatik uste duzu direla garrantzitsuak?*

BESTE ERREFERENTZIA BATZUK

FILMAK:
Tomboy, Céline Sciamma. Frantzia, 2013, 82’
Orlando, mi biografía política, Paul B. Preciado. Frantzia, 2023, 98’
Close, Lukas Dhont. Belgika - Herbeherek - Frantzia, 2022, 104’
Estiu 1993, Carla Simón. Espainia, 2017, 97’

IRAKURKETAK:
Mari-mutil handi baten blues, Leslie Feinberg. Katakrak Liburuak, 2018
Borrokalari transgeneroak, Leslie Feinberg. Katakrak Liburuak, 2021
A la conquista del cuerpo equivocado, Miquel Missé. Egales, 2018

20.000 erle espezie filmaren inguruan egin dugun gida pedagogiko honek lagundu nahi du lanketa-prozesuan identifikatu ditugun zenbait alderdi, tematiko eta formal, azpimarratzen. Gida hau irakasleei zuzendua dago. Hemen aurkezten ditugunak lanketa-ildo proposamenak dira, pelikula ikusi ondoren bakoitzak bere ikastexe, elkarte edo hezkuntza testuingurura egokitu ditzan, nahi duen erara erabiltzeko. Gida honetatik abiatuta garatu daitezkeen jarduera ezberdinek genero-sistema bitar batean hazteak eta hezteak suposatzen duenari buruz kritikoki pentsatzea sustatzeko balio dezaketela uste dugu.

ESTIBALIZ URRESOLA SOLAGUREN, ESPAINIA, 2023, 125'
Gaztelera, euskara, frantsesa
20.000 ERLE ESPEZIE

SINOPSIS
Cocók zortzi urte ditu, ez dator bat gainontzekoek berarengandik espero dutenarekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek beti Aitor deitzen dioten arren, berak ez dubere burua izen horrekin identifikatzen.

Anek, bere amak, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera joateko. Bertan bere ama Lita eta izeko Lourdes erlezaina bizi dira.

Uda honek bizitza aldatuko die hiru belaunaldi ezberdinetako emakume hauei, beren zalantza eta beldurrei aurre egitera behartuz. Eta batez ere, Aneri, azkenean zintzoa izan beharko baitu bere buruarekin.

Gida hiru bloketan antolatu dugu, pelikularen ardatz nagusiei erreferentzia egiten dietenak. Bloke bakoitzaren barruan hiru azpi-atal daude. Alde batetik, ildoarekiko hausnarketa orokorra, tematikoki zein zinematografikoki inportanteak iruditzen zaizkigun ideiak laburki garatuz. Bestetik, eszena ezberdinen minutajea, blokearen lanketan lagundu dezan. Eta azkenik, galdera gakoak edo hausnarketarako balio dezaketen ariketa proposamenak.

Hizkuntza eta generoa. Genero-sistema bitarra hizkuntzan ere oso barneratua dago. Hizkuntza ere bada autoizendatze horrek suposatzen duen zamaren eragile. Hizkuntzarekin lotutako genero-marka hauek badaukate bere garrantzia pelikulan, Lucíaren ingurua bere ondoezaz jabetzeko momentuan eta beraien arteko elkar-ulertzean. Gaztelerak euskarak baino genero-marka askoz determinatuagoak dituzenez, zuzendariak hizkuntzen aldaketa erabiltzen du pasarte hauek irudikatzeko.

Eremuz kanpo. Hizkuntza eta generoarekin lotuta kontzeptu zinematografiko bati buruz hitz egin nahi dugu: eremuz kanpokoa. Zine kontzeptu honek kameraren enkoadraketatik kanpo ematen den informazio dramatikoari egiten dio erreferentzia. Soinuaren bitartez lantzen da.

Hemen adibide bat: 26:00-26:39 pasartean Lucía bere amonarekin doa eta bizilagunek agurtzen dituzte. Irudian Lucíaren aurpegia ikusiko dugu denbora guztian baina amona eta bizilagunen arteko elkarriketa entzungo dugu. Bizilagun batek dio “está muy hermosa” eta amonaren erantzuna “guapísimo” izango da.



Personalki ere gatazkan dago. Transformazioan dago Ane. Estibaliz Urresolak elkarriketeta batean dio berez pelikularen protagonista amaren eta Lucíaren arteko harremana dela, hori dela nagusiki transformatzen dena.

Erlauntza. Eszena batean erreferentzia zuzena egiten zaio familiako harreman eta rol sare honi, familiako partaideak erle mota ezberdinekin konparatuz: nor den erle-inudea, erle-mandoa , zaindaria... “Eta erregina?” Atal honetako gogoetaren nahia da, batetik, generoa bizitzeko moduek harremanak baldintzatzen dituztela ikustaraztea. Anitza den harreman-erlauntza honetan, genero eraikuntzak denengan baitauka eragina, ez bakarrik Lucíarengan.

Halaber, garrantzizkoa da jabetzea generoa bizitzeko moduak ere anitzak direla. Izenburuko metaforak adierazten duen moduan, 20.000 modu egon daitezkeela hori bizitzeko.

Harreman-sare honetan funtsezkoa da ingurukoek egiten duten ibilbidea, Lucíarentzat segurua den espazio bat eraikitzea. Termino honek ez dio erreferentzia egiten espazio fisikoari, lekuari; bertan ematen diren

ezin da neska / mutil dikotomiatik atera. Zurruntasun eta zapalkuntza hau Lucíak izebarekin errekan bainua hartzen duen momentuarekin kontrajarri dezakegu: bertan lasaigo dago, eta lehendabiziko sentitzen du bere gorputza izekori aurkezteko ausardia. Errekako espazio naturalean mugak, nahiz eta egon daitezkeen, lausoagoak dira, eta horrez gain segurtasuna ematen dion pertsona batekin dago. Piszinako umunetan amarekin sentitzen duen amonruarekin alderatuta, errekan izebak espazio seguru bat sortzen du, “neska baten pitilinak garbi egon behar du” esaten dionean kasu. Erosotasuna edo arroztasuna espazioek, pertsonen jarrerek, begiradek eta beste hainbeste egiturek determinatzen dute.

Eskulturen tailerra da gorputzak presentzia handia duen beste espazio bat. Lucíaren amak, Anek, berea duen leku bat da; gustukoa, segurua. Tailerrean lanean ari da, pieza berriak gorputzu nahian. Lucia eta bere anai-arrebek ere gustuko dute, deskubrimendu eta esperimentazio leku bat da beraientzat.

Amak argizariarekin beraien autoerretratua egiteko eskatzen dienean, anaiak aita eta bera irudikatzen ditu; alaba zaharrenak bere gorputz idealizatua; eta Lucíak, berriz, sirena bat. Lucíaren autorretratua bada ere hasiera batean arreta deitzen duena, eszena honetan erraz identifikatu daiteke Lucíaren senideen auto-errepresentazioak nondik eta nola dauden eraikiak.

Sirena. Lucíak bere burua sirena batekin identifikatu izana akaso ez da ausazkoa. Ez genuke sirenen iruditeria erromantizatu nahi; oso feminizatua dagoeno irudia izanik, ikus-entzunezko mainstream-aren eraginez besteak beste. Baina parekatze honek agian izan dezake harremana gorputz ez bitar batekin identifikatzearekin, edo behintzat genitalitaterik ez daukan izaki batekin. Lucíak bere burua horrela irudikatzean sisteman arrakala bat sortzen du, astindu bat.

Hizkuntza eta generoa. Genero-sistema bitarra hizkuntzan ere oso barneratua dago. Hizkuntza ere bada autoizendatze horrek suposatzen duen zamaren eragile. Hizkuntzarekin lotutako genero-marka hauek badaukate bere garrantzia pelikulan, Lucíaren ingurua bere ondoezaz jabetzeko momentuan eta beraien arteko elkar-ulertzean. Gaztelerak euskarak baino genero-marka askoz determinatuagoak dituzenez, zuzendariak hizkuntzen aldaketa erabiltzen du pasarte hauek irudikatzeko.

Eremuz kanpo. Hizkuntza eta generoarekin lotuta kontzeptu zinematografiko bati buruz hitz egin nahi dugu: eremuz kanpokoa. Zine kontzeptu honek kameraren enkoadraketatik kanpo ematen den informazio dramatikoari egiten dio erreferentzia. Soinuaren bitartez lantzen da.

Hemen adibide bat: 26:00-26:39 pasartean Lucía bere amonarekin doa eta bizilagunek agurtzen dituzte. Irudian Lucíaren aurpegia ikusiko dugu denbora guztian baina amona eta bizilagunen arteko elkarriketa entzungo dugu. Bizilagun batek dio “está muy hermosa” eta amonaren erantzuna “guapísimo” izango da.

Personalki ere gatazkan dago. Transformazioan dago Ane. Estibaliz Urresolak elkarriketeta batean dio berez pelikularen protagonista amaren eta Lucíaren arteko harremana dela, hori dela nagusiki transformatzen dena.

Erlauntza. Eszena batean erreferentzia zuzena egiten zaio familiako harreman eta rol sare honi, familiako partaideak erle mota ezberdinekin konparatuz: nor den erle-inudea, erle-mandoa , zaindaria... “Eta erregina?” Atal honetako gogoetaren nahia da, batetik, generoa bizitzeko moduek harremanak baldintzatzen dituztela ikustaraztea. Anitza den harreman-erlauntza honetan, genero eraikuntzak denengan baitauka eragina, ez bakarrik Lucíarengan.

Halaber, garrantzizkoa da jabetzea generoa bizitzeko moduak ere anitzak direla. Izenburuko metaforak adierazten duen moduan, 20.000 modu egon daitezkeela hori bizitzeko.

Harreman-sare honetan funtsezkoa da ingurukoek egiten duten ibilbidea, Lucíarentzat segurua den espazio bat eraikitzea. Termino honek ez dio erreferentzia egiten espazio fisikoari, lekuari; bertan ematen diren

ezin da neska / mutil dikotomiatik atera. Zurruntasun eta zapalkuntza hau Lucíak izebarekin errekan bainua hartzen duen momentuarekin kontrajarri dezakegu: bertan lasaigo dago, eta lehendabiziko sentitzen du bere gorputza izekori aurkezteko ausardia. Errekako espazio naturalean mugak, nahiz eta egon daitezkeen, lausoagoak dira, eta horrez gain segurtasuna ematen dion pertsona batekin dago. Piszinako umunetan amarekin sentitzen duen amonruarekin alderatuta, errekan izebak espazio seguru bat sortzen du, “neska baten pitilinak garbi egon behar du” es